

opusdei.org

Gaztelueta Fundazioaren Hezkuntza Eleaniztuneko Nazioarteko VII. Jardunaldietan.

200etik gora aditu ari dira parte hartzen. Bilketan Euskadi eta Europako zenbait herritako ehunka adituk parte hartu du

2009 Ots 17

Gaztelueta Fundazioak, Opus Deiko obra korporatiboa den Gaztelueta

Ikastetxearekin lotua denak,
ehunako aditu bildu ditu urtarrilaren
29 eta 30ean egin diren Hezkuntza
Eleaniztuneko Nazioarteko VII.

Jardunaldietan. Topaketa,
Euskalduna Jauregian egin da, bere
xedea izanik, hizkuntzaren arloan,
euskal curriculum berriak dituen
erronketan sakontzea. Horretarako,
Bilbon bildu dira Europa mailako
ekimen nagusien bultzatzaileak
eta, horiekin batera, Eusko
Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta
Euskadiko Ikastolen Federazioko
arduradunak eta hezkuntzako euskal
zentro askotako irakasleak.

Ardatza “Gaitasun eleaniztunaren
erronka curriculum berrian” dela,
jardunaldiek euskal hezkuntzaren
egoera aztertu eta Europako beste
herri batzuetako egoerarekin
konparatu dute; aldi berean,
irakaskuntzan beste hizkuntza
batzuk integratzeko era berriak
aztertu egin dira. Horrez gain

eztabaidatu egin da, hizkuntzak
ikastea izanik helburua, edukiak
integratzeko ereduaz. Bilketa, Eusko
Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta
Bizkaiko Foru Aldundiaren
lankidetzarekin burutzen da;
halaber, babesleen artean daude
Fundación “La Caixa” eta Santillana
argitaletxea.

Txostengileen artean gailendu egin
dira nazioarte mailako adituak,
berbarako finlandiar Unibertsitateko
Tuula Asikainen eta David Marsh ,
Eskoziako Aberdeengo
Unibertsitateko Do Coyle, Ekialdeko
Europatik etorritako Keith Nelly eta
Frantziatik Djamel Ould, pedagogian
espezializatua. Halaber, guretzat
hurbilagokoak diren beste aditu
batzuk ere izan dute parte,
Mondragon Unibertsitateko Pilar
Sagasti eta Euskal Herriko
Unibertsitateko Jasone Cenoz
irakaslea, Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza Saileko hainbat

aholkulari eta teknikari,
Bartzelonako Escola Vila Olimpica-ko
Teresa Serra eta Gaztelueta
Ikastetxeko irakasle batzuek.

Gaztelueta Fundazioak, jardunaldi
hauekin, eguneratu egiten du bere
konpromisoa, alegia, jarduteko
eremu duen Euskadiko hezkuntza-
kalitatea hobetzearekin duena.
Fundazioa, Leioako Gaztelueta
Ikastetxearena da eta, jardunaldi
hauekin, zazpi izango dira
hezkuntzari lotuta dauden gaien
arloan antolatu dituenak. Gaztelueta
Ikastetxea aurrelaria izan da,
Euskadin, hirueledun hezkuntza
eredua garatzean, eta xede horrekin
dihardu lanean.

David Marsh, Berria agunkarian
Tuula Asikainen, EL CORREO
egunkarian David Marsh, Deia
egunkarian

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/gaztelueta-fundazioaren-
hezkuntza-eleaniztuneko-nazioarteko-
vii-jardunaldietan/](https://opusdei.org/eu-es/article/gaztelueta-fundazioaren-hezkuntza-eleaniztuneko-nazioarteko-vii-jardunaldietan/) (2025 Api 20)